

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3573

1180/2024 EBAZPENA, uztailaren 10ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleitzen diren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Emergentzietako Ibilgailuen Gidaria kategoriako/lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko abenduko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1314/2021 Ebazpenaren bidez (azaroaren 8ko EHAA 221. zk.), lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako deialdia egin zen Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Emergentzietako Ibilgailuen Gidaria kategoriarako Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 11ko 1669/2023 Ebazpenaren bidez (abenduaren 27ko EHAA 245. zk.), lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko abenduko zikloko eskaintza argitara eman zen Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Emergentzietako Ibilgailuen Gidaria kategorია/lanpostu funtzionalerako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren ekainaren 11ko 437/2024 Ebazpenaren bidez, argitara eman ziren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin-behinean esleitu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Emergentzietako Ibilgailuen Gidaria kategoriako/lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko abenduko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko. Bada, erabaki horren eranskinaren 9.8 oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik, epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari bidali dio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten urriaren 21eko 1314/2021 Ebazpeneko Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Emergentzietako Ibilgailuen Gidaria kategoriako destinoen esleipenari dagokion behin betiko zerrenda. Hortaz, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea, ebazpen honen I. eranskinaren bidez, Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Emergentzietako Ibilgailuen Gidaria kategoriako destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko abenduko zikloan onartutako langileen behin betiko zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran. Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 11ko 1669/2023 Ebazpenean daude jasota.

Bigarrena.– Onartzea, ebazpen honekin batera doan II. eranskinaren bidez, Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Emergentsietako Ibilgailuen Gidaria kategoriako destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko abenduko zikloan baztertutako langileen behin betiko zerrenda, baztertzeko arrazoiak adierazita. Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 11ko 1669/2023 Ebazpenean daude jasota.

Hirugarrena.– Ebazpen honen III. eranskinaren bidez argitara emateko agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 11ko 1669/2023 Ebazpenaren eranskinean eskainitako lanpostu funtzionalari dagozkion destinoen esleipendunen behin betiko zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Laugarrena.– Behin betiko esleitutako destinoei ezin zaie uko egin, salbu eta uko egite hori beste administrazio publiko edo osasun-zerbitzu batek egindako borondatezko behin betiko mugikortasun-prozedura baten deialdiaren ebazpenari jarraiki destino bat lortzearen ondorioz bada –Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 37.4 artikuluan ezarritakoaren arabera– edo izendapen askeko izendapen baten ondorioz bada.

Bosgarrena.– Destinoa lortzen duten izangaiek betetzen ari diren destinoa utzi beharko dute, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan.

Izangaiek, oro har, aurreko destinoa utzi eta hiru eguneko epean jabetu beharko dira lanpostuaz, baldin eta lanpostuak herri berean badaude; bost eguneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batean badaude; eta hilabeteko epean, izangaiek osasun-zerbitzuz aldatu behar badute. Langileek, emandako destinoaren bidez zerbitzu aktibora itzultzen badira, hilabeteko epea izango dute lanpostuaz jabetzeko, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Lanpostuaz jabetzerakoan esleipenduna zerbitzu-eginkizunetan, aldi baterako barne-sustapenean edo behin-behineko atxikipenean badago Osakidetzan, 2019ko azaroaren 27ko 9.9.3 apartatuan aurreikusten den epea izango du lanpostuaz jabetzeko. Hala ere, epe hori konputatzeko, betetzen duen destinoa ere kontuan hartu beharko da, azken horren esleipenduna ez bada behintzat. Horrela izanez gero, lanpostuaz jabetuko da EHAAn destinoak behin betiko esleitzeko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunean, baldin eta behin-behineko atxikipenean badago, edo, bestela, kargua-utzi eta hurrengo egunean, baldin eta zerbitzu-eginkizunetan eta aldi baterako barne-sustapenean badago.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Zazpigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 9.8. oinarrian xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 10a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2024ko uztailaren 22a, astelehena

I. ERANSKINA

1669/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA

ONARTUEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: LARRIALDIETAKO IBILGAILUEN GIDARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: LARRIALDIETAKO IBILGAILUEN GIDARIA

Ordena	NAN	Izen-abizenak
1	***6908**	Fagoaga Vergara, Maria Jose

2024ko uztailaren 22a, astelehena

II. ERANSKINA

1669/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA

BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: LARRIALDIETAKO IBILGAILUEN GIDARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: LARRIALDIETAKO IBILGAILUEN GIDARIA

NAN	Izen-abizenak	Baztertzeko arrazoia
***8200**	Abad Benavente, Alvaro	Ez du plazarik kategorian
		Ez da estatutario finkoa
		Ez du 2.1.2. oinarria betetzen
***8033**	Muguruza Mas, Jose Angel	Lehiaketan atzera egin du
***2586**	Zapatero Palacios, David	Ez du plazarik kategorian
		Ez da estatutario finkoa
		Ez du 2.1.2. oinarria betetzen

2024ko uztailaren 22a, astelehena

III. ERANSKINA
1669/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA
LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA
KATEGORIA: LARRIALDIETAKO IBILGAILUEN GIDARIA
LANPOSTU FUNTZIONALA: LARRIALDIETAKO IBILGAILUEN GIDARIA

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako Erakundea	Destinoa	HE	Derrig. data
***6908**	Fagoaga Vergara, Maria Jose	Emergentziak	Emergentziak-Emergentzietako Arreta / Emergentzietako Bidasoko Talde-Hondarribia / Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Emergentzietako Taldea-Anbulantziak / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua= 12 orduko lanaldi jarraitua-12 Orduko txandak	2	